

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AIARAKO UDALA

**Aiarako Udaleko alkateak emandako 2019ko azaroaren 4ko Dekretuaren laburpena, zeinak onartzen dituen Aiarako udalerriko administrazio batzarrei dirulaguntzak emateko deialdia 2019ko obren eta ordainsari teknikoen gastuetarako**

BDNS (identifikatzailea): 480638

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3 b) eta 20.8 a) artikuluetan ezarritakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena; testu osoa Dirulaguntzen Estatuko Datu Basean kontsultatu daiteke: <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>:

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Dirulaguntza hauen onuradun izango dira udalerriko administrazio batzar guztiak.

#### **Bigarrena. Xedea**

Deialdi honen xedea da arautzea Aiarako udalerriko administrazio batzarrei 2019. ekitaldirako dirulaguntzak ematea, helburu jakin baterako, obrak egiteko eta haien ordainsari teknikoak ordaintzeko.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak alkatearen 2019ko azaroaren 4ko 2019/536 Dekretuaren bidez onetsi ziren.

Oinarri arautzaileak obren eta haien ordainsari teknikoen gastuetarako Aiarako administrazio batzarrei dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantzan jasota daude. 2018ko otsailaren 28ko ALHAOn (25 zk.) argitaratu zen.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Dirulaguntzak emateko prozedurari jarraikiz, eta dirulaguntzaren beraren izaera kontuan hartuta, dirulaguntza honetara bideratutako gehieneko zenbateko orokorra proportzionalki banatuko da onuradunen artean, oinarri hauetan ezarritako mugekin. Udalaren 2019rako aurrekontuan, gastu aurrekontuko esleipen hauek dira muga:

Partida: 943.734000: 35.000,00 euro.

Partida: 943.734001: 35.000,00 euro.

Administrazio batzar bakoitzak obra bakarrerako eskatu ahalko du dirulaguntza. Deialdiaren oinarrietan zehaztutako obra motarako eskatu ahalko da laguntza.

Dagokion dirulaguntza kalkulatzeko, oinarritzko azpiegitura obrak lehenetsiko dira (3.1.2.a oinarrian jasotakoaren arabera), eta kontuan hartuko da obren eta haien ordainsari teknikoen gastuetarako Aiarako administrazio batzarrei dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantzan xedatutakoa.

Deialdiaren oinarrietan zerrendatutako ordainsari teknikoen ehuneko berrogeita hamar lagunduko da diruz. Administrazio batzar bakoitzak dirulaguntza eskatu ahalko du nahi adina ordainsari estaltzeko. Hala ere, dirulaguntzaren urteko muga 6.000,00 eurokoa izango da, administrazio batzar bakoitzeko, aurkeztutako eskari guztietarako.

Halako laguntzetara esleitutako aurrekontu aplikazioaren gehieneko zenbatekoarekin ezin badira erantzun aurkeztutako eskari guztiak, obren eta haien ordainsari teknikoen gastuetarako Aiarako administrazio batzarrei dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantzan xedatutakoari jarraituko zaio.

**Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea**

Eskaerak deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik 2019ko abenduaren 5era aurkeztu beharko dira, biak barne.

**Seigarrena. Beste datu batzuk**

Eskaeraren eranskin guztiak beteta aurkeztu beharko dira.

Arespalditza, 2019ko azaroaren 6a

*Alkate-lehendakaria*

*GENTZA ALAMILLO UDAETA*